

JAINKOEN LURRALDE GALDUA, GAURKO POBREEN ETXE



Nagore Irazustabarrena
Uranga
@irazustabarrena

Egipto, K.a. 2500. V. dinastiako faraoi Sahurak lehen espedizioa bidali zuen Punt erresumara, idatziz jasotako lehen behintzat. Hurrengo dinastiako Pepi II.ak ere itsasontzi bat bidali zuen Egiptoar Inperioaren hego-ekialdean omen zegoen lurraldera. XI. dinastiako Mentuhotep III.ak ere agindu bera eman zuen. Baina espediziorik ezagunena XVIII. dinastiako Hatsepsut erregina-faraioaren garaian egin zen, Inperio Berriaren hasieran, Deir el-Bahariko tenpluko erliebeetan xehe-xehe deskribatuta gorde dena.

Punt Hathor jainko-jainkosaren lurraldea eta Rak lurrean zeukan etxea zen. Goizero eguzki-jainkoa hantxe jaikitzen zen, mundua argiz betetzeko. *Ta-netcher* esaten zioten egiptoarrek, "jainkoaren lurraldea", alegia, eta paregabeko aberastasunak zituen: intsentsua, mirra, ebanoa, urrea, malakita...

Hatsepsut Egiptoko tronuan luzean egon zen emakumea izan zen, K. a. 1479tik 1457 arte. Eta Punteko espedizioa agintaldiaren une gorena izan zen. Lehorretik nahiz itsasoan abiatu zen espedizioa, hainbat gurdi eta 24 metro luze ziren bost ontzi Punteko agintarientzako opariz bete ondoren. Besteak beste, Hatsepsut erregina eta Amon jainkoa elkarrekin irudikatzen zituen eta granito arrosazko bloke bakar batekin zi-



Egiptoar espedizioa Punt herrialdera iritsi zenekoa irudikatzen duen erliebea, Hatsepsut faraoiaren garaikoa, Deir el-Bahari tenpluan.

zelkatua zegoen estatua erraldoia eraman zieten lurralde joriko biztanleei. Bidaia oso arrakastatsua izan zen. Bizirik zeuden 30 zuhaitz eraman zituzten bueltan, gero Deir el-Bahariko tenpluaren atarian landatuko zituztenak; palmondoak eta sikomoroak besterik ez zituen herrialdean, bestelako zuhaitzak ondasun preziatuak ziren. Gainera, mirra, ebanoa, bolia, "urre berdea" (malakita), intsentsua, animalien larruak, txakurrak, babuinoak eta bestelako tximurak eraman zituzten gortera.

Punteko Ity erregina eta Parehu erregea xehe deskribatu zituzten espedizionarioek; hangoek egiptoarrek baino azal ilunagoa zutela esan zuten, adibidez. Baina lurralde miragarriaren kokapenik ez zuten zehaztu, eta gaurdaino ez da Punten arrasto arkeologikorik identifikatu. Adituen ustez, egungo Sudan, Somalia, Eritrea, Etiopia eta Djibuti inguruan egon zitekeen. Beraz, Ra jainkoaren etxe oparoa zena planetako eremu txiroenetakoa da egun. ■



HONGEN JIANG

Cannabisa, duela 2.500 urteko hil-oihala

Txinako ipar-mendebaldean, antzinako Jiayi hilerriko M231 hilobian, aurkikuntza berezia egin dute: duela 2.400-2.800 urteko gorpuaren gainean hamahiru cannabis landare ia oso zeuden, diagonalan jarrita, hil-oihal moduan. *Economic Botany* aldizkarian argitaratutako artikularen arabera, eremu horretako klima lehorrak lagundu du kalamu landareak

hain ondo kontserbatzen, argazkian ageri denez. K.a. lehen milurtekoan Erdialdeko Eurasian kalamua errituetan eta sendagarri erabiltzen zutela baieztatu du aurkikuntzak. Lehenago, garai bereko Ukok printzesaren hilobian, *cannabis sativa* haziak aurkitu zituzten. Printzesak, ustez, landarea erabili zuen bularreko minbizia arintzeko. ■